



KALITATEZKO AUTOBUS ZERBITZU BATEN ALDE, MURRIZKETARIK EZ

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2017ko irailaren 7an, bidaiaren garraio erregular iraunkorreko zerbitzu publikoa (Tolosa N-1 eta Buruntzaldea eta Donostiako loturak izenekoa) argitaratu zuen. Argitaratutakoaren arabera, onartutako aurreproiektua jendaurrean erakutsi zen hilabeteko epean. Epe horretan, edozein pertsona edo entitatek egoki irizten dituen alegazioak egitea zuen aurreproiektuari.

2017ko urriaren 6an Foru Agindua bidez, ebatzi zen luzatzea 2017ko urriaren 23ra arte alegazioak eta oharak aurkezteko epea.

Autobus zerbitzu honek 40.000tik gora tolosarri eman dio zerbitzu 2016. urtean eta urtez urte erabiltzaile kopurua igotzen doa %2a, hain zuzen.

Tolosaren kasuan, murrizketa hauek oso esanguratsuak dira, Donostiara doazen herrien arteko autobus zerbitzuen maiztasuna 30 minututik 60 minutura pasatzen baitira eta egunean zehar 33 izatetik 18 izatera pasatzen dira. Hori gutxi ez eta lehen ordutan unibertsitatara doazen 8 zerbitzuetatik 4 desagertzen dira.

Horiek horrela, ondorengo mozioa proposatzen dugu onartzeko:

1. Tolosako Udaleko Osoko Bilkurak Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa Sailari eskatzen dio Tolosaren konektagarritasuna bermatzeko Donostiarekin eta Buruntzaldea osoarekin, hiriarteko autobus-zerbitzuaren bitartez, arreta berezia eskainita puntako lanorduei eta eskola-orduei, eta zerbitzuak udalerriko eta Buruntzaldea osoko biztanleen benetako mugikortasunera egokituta.
2. Aurreproiektu honek eragin negatiboa sortaratzen duela tolosarrean eta eskualdeko herriarregan. Gainera, aldeztu aurretik, ez zaie honen berri eman erangindako udalerriari.
3. Garraio publikoaren azterketa sakona egin artean mantendu ditzala orain arteko zerbitzuak.
4. Tolosako Udaleko Osoko Bilkurak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio alegazio epean egindako ekarpenak kontuan hartzeko, Tolosaldean Lurraldebusen zerbitzua hobetzen jarraitzeko baliagarriak izan daitezke eta.

Tolosa, 2017ko urriaren 31a